

# ANAITASUNA

252. zenb.

1973.eko martxoaren 30ekoa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5  
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

## Urre patroia eta Britainia haundiaren inperioa

Nazioarteko harreman ekonomikoak (salerosketak eta abar) ez dira beti berdinak izan eta neurri berekoak; eta aldakuntza hoi arabera\* aldatu da diru sistema ere. Dirua baita, harreman hoik\* errazten eta aisatzen\* dituena; dirua baita ekonomiaren lubrikantea.

Eguno\* krisia ondo konprenitzeko, beharrezkoa dugu atzera begiratzea. Eta ez historiaren erakusketaz baliatzeko bakarrik, ez; bai eta aintzinako sistemetara itzuli nahi dutenak ere ba direlako. De Gaulleren jokaera bide horretatik joan zen, 1965. urtean dolarrezko erreserbak urrez gantiatzea erabaki zuenean. Jacques Rueff, frantses teorikoak, hori kontseilatu zion.

### URRE PATROIAREN TEORIA

Diru sistema honen helburua, nazioarteko harreman ekonomikoak permititzea zen. Esan nahi da, urre patroiak Pagamendu Balantzearen ekilibrioari eutsi behar ziola, eta desekilibrioak zuzendu; eta hori dena **automatikoki**. Edozein erresuma\* arteko zor eta hartzeko,\* **urre soilean** ordaindu behar zen. Urreak eta perperdiruak, legeak ezarritako proportzio batean egon behar zuten; eta edozein pertsonak truka zezakeen paper- edo bankudirua urreatatik. Estatuetakoko Banketxeak horretara behartuak zeuden.

Kanpoarekiko\* ekilibrioari atxikia\* egon behar zuen ekonomiaren funtzionamendu guztiak. Hori zen, XIX. mende osoan eta lehen gerrate haundirarte, xederik\* nagusia.

Demagun,\* Z erresumak Pagamendu Balantzea hartzekodun burutzen\* duela. Orduan —eta beti ekonomilari klasikoen esatez— nola paperdirua urrearen eraginez (erresuma zordunek bidalitako urrearen eraginez, jakina) ugaritu egiten den, prezioak igo egiten dira, Z herriko produktuak garestituz; eta, ondorenean, esportazioak urritu egiten dira, eta inportazioak gehitu.

Eta, noski, pagamenduak urre soilean egiten badira, derri gorrezkoa da urrearen ihestea,\* honela lehengo ekilibriora itzuliz. Aldrebes gertatuko litzateke, Pagamendu Balantzea zordun burutuz gero.



Ekilibrio lorketari laguntzeko, Estatuetakoko Banketxeak korrituen\* gorabeherez baliatzen ziren. Urrea gainezka sartzen bazen, korritua eraitsi\* egiten zuten Banketxeek, honela kapitalak uxatuz (korritu handiagoa ematen zuten erresumetarantz).

### URRE PATROIAREN BENETAKO ONDORIOAK

1760. urterako, Britainia Haundiak hasia zuen bere indus-triatzea, beste Estatu guztiei ehun urteko aurrea hartuz. Kon-petidore bakarra Frantzia izan zitekeen; baina, 1815.ean Water-looko bataila zela bitarte, erraza egin zitzaion Britainia Haun-diari munduko agintea hartzea, eta bere inperioa hedatzea.

Britainia Haundiak ez zuen munduko ekonomia bere zer-bitzuan antolatzeko oztoporik izan, eta horretarako, liberalismo



# Urre patroia eta Britainia haundiaren inperioa

politiko-ekonomikoa ezarri zuen. «Laissez faire, laissez passer» zioen liberalismoak, ekonomia libre utzi behar zela adierazi nahirik, Estatuaren esku sartzea gorrotatuz. Desekilibrioak naturalki zuzenduko ziren, eta ekonomia desarroilatuz joanen zen mundu guztian.

Urre patroia makina honen engranaje bat besterik ez zen: liberalismoaren gurgila\* zen.

Britainia Haundiak, lehen materien eskasia sufriturik eta manufaktura industria boteretsu bat izanik, kanpoarekiko salerosketan finkatu du beti bere ekonomia. Nola esportazio baino inportazio gehiago egiten baitzuen, haren komertziozko balantzea negatiboa zen. Halaz ere, oro\* har, Pagamendu Balantzea ez zen zorduna, positiboa baizik, garraioa, asurantzak eta atzerrian inbertitutako kapitalen mozkinak\* zirela medio.

Gainera, munduko diru operazio guztiak Londresko City-n egiten ziren, hau baitzen munduko finantza plaza nagusia, bakarra ez esateagatik.

Gauzak honela, Britainia Haundiak, desekilibrioa superavit aldetik etortzen bazitzaion (zordunen urrea jasoz, hain zuzen), prestamu edo inbertsio zuzenak egiten zituen atzerrian. Hoiak,\* beste erresuma erdi kolonizatuetakoa oligarkien eskutara joaten ziren, lehen gaien jabe ziren jauntxoengana, edo, bestela, lehen materia hoik inportatzeko beharrezko ziren garraio bide eta itsasportuak eginez xahutzen\* ziren.

Modu horretan, Estatu behartsuenetan zaila egiten zen edozein motatako industriarik eraikitzea. Bide batez, gainera, metropoliko industriak beren merkatuak zabalduz zihoazen.

Eta Pagamendu Balantzea zorretan burutzen bazuen, herriz Britainia Haundiak ongi probetxatzen zuen bere nagusioa. Urre joate hori gelditu erazteko, kapitalen korritua igo egiten zen, kanpora joanen ziren kapitalak bertan gera\* eraziz eta atzerri-rik kapital berri batzuk\* ekar eraziz (korritu on horren bila, horixe). Honela, Britainia Haundiak ekilibrioa lortzen zuen, bai: baina herri kolonizatuak bizkarretik. Zeren\* hauetan, metropoliak ematen zizkien kredituak moztu egiten baitziren, bertako negozio eta beste aktibitate ekonomikoak zeharo moteldu eta baretuz. Makaltze honek lehen gaien beherakada zekarren berekin, eta oligarkiaren irabazien guttitzea. Baina, jakina, oligarkiak herri seheari pasatzen zion zama,\* lansariak eraitziz\* eta abar. Beherakada horrekin, gainera, laneza\* haunditu egiten zen.

Hara nolako «zoriona» zekarren liberalismoaren (eta, beronekin batera, urre patroia) funtzionamendu automatikoak! Britainia Haundiaren desekilibrioak, herri eta jende behartsuen mixeria areagotzea\* besterik ez zuen egiten.



**MENCHACA**

Esta kaka, biziak, ikurrak, itos  
-siek, lger, sekak, Urteak, Jan-  
-tzak, Aioatze-ko Itzak

Zuzenbideak: Posta, 700-Urribitarte, 245574-Telegrafoa, MENURI  
Muelle de Uribitarte, 15

B I L B O - 1

Diru erakunde\* hori herri aurreratuetan ongi ibili bazen, arrazoi hauengatik izan zela esanen genuke:

- garai haietan kapitalismoa zabaltzen ari zen.
- ateratzen zèn urrea (eta honi lotuak doazen banku- eta paperdirua) merkatalgoaren\* behararen heinean\* ugartu zen.
- zama\* jasaten zèn langileria eta herri xumea,\* indargea\* zen.
- ekonomia super-erresuma baten (Britainia Haundiaren) inguruan mugitzen zelako.

Horregatik, XX. mendean matxinadak hasi zirenean, eta protekzionismoaz baliatuz beste inperioak (USA, Alemania...) sortu zirenean, urre patroia pikotara\* joan zen. Honen oinharriak suntsituak\* izan ziren, kapitalismoa bere inperialist fasean sartutakoan. Mundu guztiko lurraldeen errepartizioak egin eta gero, merkatu eta lehen gaiak nahí diruena, beste erresuma handiei koloniak kentzera behartua dago.

1914. urteko gerratea, «partizio berri» baten burruka besterik ez zen izan.

JOSETXO EZPELETA

zeuden, egozen  
zihoazen, joiazan, joaten ziren  
zioen, inoan, esaten zuen  
zion, eutson  
zitekeen, eitekean  
zitzaien, jakon  
zizkien, eutsezan



Emakume, gizonezko eta umeen jantziak

Oihal, izare eta etxean behar diren gainerakoak

Bai emakume eta bai gizonezkoentzako jantzi aukeratuenak, azken modara eginak

HURI ZAHARRA

"Casco Viejo"

BILBO



# PUNTU BATZUK ARGITZEN

Oraingo honekin erantzun bat eman nahi diot Imanol Laspiurri, «Falta genuena» artikulugatik. ZERUKO ARGIAren 521. zenbakian eskutitz bezala idazten deraut, eta nik ere era berean erantzun gura diot.

Pozarren\* irakurri dut zure erantzuna. Neure artikuluhorik\* idatzi nituenean, ez nengoen hain segur inork ihardetsiko\* zerautanik. Baina, dakusadanez eta entzun dudanez, ba dira honetaz kezkatzen direnak ere.

Zure erantzuna ikusiz, astiroto aztertu beharra da goela uste dut. Puntu nagusi bi bereiziko nituzke: Lehen, azentua sartzearen **komenientzia**, eta bigarrena, euskara idatziaren azentuarekiko **beharra**.

Ene eritziz, lehen puntuan ukan\* zenezake arrazoirik gehien. Herriak, dirudienez, nahiko zeregin du lehen mailako alfabetatze batekin, euskal orthographia oraindik gehiago konplikatu gabe. Beharbada, honela izanen da.

Bigarren puntua aztertutik, esan gura nerantzuna ez dut uste ondo ulertu derautazunik. Zure eskutitza irakurtzean, azentu fonetiko bati buruz mintzatzen zarela uste dut; eta ez da hori nik proposatzen dudana. Nik, azentu fonetiko barik,\* azentu graphikoa proposatzen dut. Azaldu eginen derautzut, honekin esan nahi dudana.

Gaztelaniako azentua, azentu fonetiko da: hots,\* **médico** idazten dugunean, MEdico esan behar dugu. Euskararen kasuan, azentua ezin liteke era berean erabil.

Ongi diozunez, euskalki\* bakoitzak bere azentuazio berezia du, eta, gainera, jatorra. Jatorra denez gero, errespetatu egin behar dugu euskalki bakoitzeko doinu berezi hori. Beraz, zuk diozunek, ez litzateke bidezko, azentuazio bakar bat euskalki guztiei onhar eraztea. Hau honela delarik, ezin genezake azentu fonetiko erabil, gaztelaniaz erabiltzen den antzera.

Proposatzen dudana azentua, graphikoa izanen litzateke. Adibidez, **gizonák** idaztean, ez da zertan **gizoNAK** ahozkatu behar. **Gizonák** duen azentuak, hitz hori singular aktiboa dela adierazten derauku; eta era honetan, irakurtzean, euskalki bakoitzean dagokion doinua eman ahal ukanen diogu. **Zuèn** idazten dugunean, berriz, azentu horrekin aditza erlatiboa dela adierazten dugu; gero, irakurtzean, euskalki bakoitzekoek beren doinu berezia emanen diote.

Hizkuntza modernoak aipatzen dituzu, eta honetaz ere mintzatuko natzaitzu. Bai ingelesez eta bai frantsesez, ahozkatze\* berdineko hitz batzuk idazkeraz desberdintzen dira. Adibidez, frantsesek ahozkatutik **fua**, hiru gauza izan daiteke: **fois** (bider), **foie** (gibel), **foi** (fede); ingelesek ere **flour** (irin) eta **flower** (lore) berdin ahozkatzen dituzte, baina ez orobat\* idazten. Honelako beste adibide asko aipa daiteke; baina hauekin aski\* dut, neure ideia adierazteko. Dakusazunez,\* ahozkatzean bereizi ez arren, idaztean —bai frantsesek eta bai ingelesek— bereizi egiten dituzte hitzak. Era honetan, azenturik ukan ez arren, hizkuntza idatzi horiek argitasunean irabazten

dute. Eta hauxe da nik gura dudana: euskara idatziaren argitasuna.

Azterketa honen laburpen bezala, irtenbide bat proposatuko nuke. Diozunez, beharbada ez da komenigarri Herriari gehiegirik eskatzea; eta, hori ikusirik, ez litzateke taktikoa izanen Herria ikaratzea, oraindik gehiago eskatzen diogularik. Hala ere, teknikaren ikuspegitik, soluziorik egokiena azentu graphikoa delakoan nago. Beraz, hauxe proposatuko nuke:

Aipaturiko hiru kasuetan azentu graphikoa **beti** erabiltzea larregi bada, saia bitez idazleak, **esaldiaren esannahia argi geratzen ez denean behintzat**, azentu hori erabiltzen. Ene eritziz, aditz erlatiboaren kasuan izaten da premiarik gehien; eta hori bai indartu beharko genukeela.

Besterik gabe, agur bero bat.

J. R. ETXEBARRIA

derauku, **deusku**, digu  
deraut, **deust**, dit  
derautazu, **deustazu**, didazu  
derautzut, **deutsut**, dizut  
diogu, **deutsagu**  
diot, **deutsat**

diote, **deutsoe**  
genezake, **geinke**  
natzaitzu, **natxatzu**, natzaitzu  
nerantzun, **neutsun**, nizun  
zenezake, **zeinke**  
zerautan, **eustan**, zidan

Froga ezazu zuk zeuk

**BYASS 96**

ona dela izenez eta izanez



**GONZALEZ BYASS**

JEREZ • XÉRÈS • SHERRY



# ARTZAI TONTOAK DIRAN LEKUAN GIZENDUKO DA OTSOA

ANAITASUNAREN azkenurreko numeroan, gutien espero genduean, Natxik aho bete haginekin utzi gaitu, Euskal Akademiaren irakasle tituluak emateko mahaipuruan gertatu garenok. Tituluok, duten edo izan dezaketen birtuteaz inor baliatzera heldu baino lehen, famatzen hasiak dira; eta hasiak egina dirudi. Tiroek ezker eta eskumatik —edonondik besterik ez dut esan nahi— egiten dute hots, eta haur jaio berria, festa zaratatsu baten gisa,\* inguratzen dute. Agian\* ongi etorri egiten diote.

Oraingo lerro hauetan Natxiri zenbait ohar egin nahi nioke:

1. **Euskera** aldizkariaren azkenengo numeroan ikus dezakezu zergatik eskatu zitzaizen, **curriculum vitae** delakoa bidaldu zuten gehienei, esaminak egin zitzaizten. Arrazoa argi eta garbi eman zen, eta gainera, mahaipurukoen iritzian, tituluaren mesedetan.

2. Ez dut uste, dakien inor esaminak aurrera ondo pasatu gabe gelditu denik; eta alde horretatik gertatu den kalterik ezin aipatu izango diguzu, seguru asko.

3. Euskal Akademiak behintzat ez du beste biderik, esaminak egin diren gisara egitea baino. Nola sartuko da «evaluación continua» delako horretan, eskola gelarik ez baitu, eta. inoiz Euskal Herrian beteko balitz behar bezala arlo hori, ez bailitzateke bera izango beteko lukeena, beste norbait baino? Konturatua egon behar zenuen honez gero, Euskal Akademia bestek egin behar lukeen eta egiten ez duenaren hutsune larria betetzen ari dela, gure herriari egintza hori eskainiaz. Dena dela, «evaluación continua» delako hori aurrera eramateko modua, esamina gehiago eta zehatzagoak egitea baino ezin izan daiteke. Esaminak ez dut uste gure mundutik hain erraz desagertuko direnik, dituzten akats eta guzti. Ez bakarrik Deustuko jesuitetan, beste Unibertsitateetan ere beti bezalatsu jarraitzen dute egiten; eta ez dago, maila horretan, beste muturrera aldatuko denaren seinalerik tipiena ere, egiterakoan modu askotara eginagatik. Zu pedagogiaz ari zara zeure artikuluan; baina Euskal Akademia ez da ikasleak gela batean dituela irakasten ari, neurri bateraino nork dakien ikusten baino, publikoki jakinerazteko asmoz.

4. Kontuan izan ditugu, gainera, personaren balioak eta lanak, zuk besterik uste baldin baduzu ere; eta eskatu ere egin izan da meritu bereziak aipatzea. Beste alde batetik, esaminak ez dira memoristak izan funtsean.\* Ez dut uste, hizkuntzaren analisi bat egitea memorista izan daitekeenik (azken batean, gutiago edo gehiago, memoria danerako erabili behar baldin bada ere) edo eta erdaratik euskarara itzulpen bat egitea edo bizi den autoren baten testo komentario bat egitea.

5. Txillardegiren «beti lehenak» ere aipatzen dituzu; eta, oso oker ez baldin banago, harentzat «beti lehenak» horiek diru asko irabazteko bakarrik saiatzeko dira lehen mailan jartzen; eta kasu hori ez dut uste hemen aplikatu daitekeenik, zeren\* eta aberastu nahi duenak badu euskal gazetara dedikatzea baino sail hoberik, lortu nahi duen helburua lortzeko. Zoritxarrez, euskal gazetan ez dugu «beti lehenik»; baina bagendu, beste txori batek kantatuko liguke, etorkizuna seguratua baikenduke.

6. Tituluetan, gainera —eta ez dakit horretan nola konturatu ez zaren— ez da kalifikaziorik ipini. Eman egin dira, eta besterik ez.

Titulua atera dutenetakoa baldin bazara, eta uste dut baietz, ez mesedez artzai\* tonto horietakoa izatera eror,\* titulua bera ere leiza zulotik behera amilduko bailitzateke utopiaraino, eta ukroniaraino, atera dutenek eusten ez baldin badiote.

ALFONSO IRIGOYEN

dezakete, **daik**  
dezakezu, **daik**  
diguzu, **deusk**, **deraukezu**  
diote, **deutso**  
liguke, **leusk**, **leraukegu**  
nioke, **neuskio**  
zitzaizen, **jaken**  
zitzaizen, **eiezan**

## GALERIA DEL LIBRO

Gotzon Zaballa

Liburudenda  
erregalutarako gauzak  
Euskal liburuak  
Paperteria

EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, núm. 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1



# Neure lantokitik

## DENDA IZENAK EUSKARAZ

Euskaltzaindiak, martxoaren azken egunotarako, erabaki bat hartuko du ofizialki, denda, kargu eta ofizioen izenak euskaraz nola diren esanez.

Izen horik,\* ontzat hartu ondoren, Euskal Herri osoan zabalduko dira, jendeak nola joka jakin dezan. Dendarien eta merkatarien ahaleginez, beharbada, gure kaleak euskaldundu egingo dira. Orduan, guk ere aukera\* edukiko dugu, berdinean,\* euskal izena duten dendetara erostera joateko, haxe baita, gaur egun, euskarari balio positibo bat emateko dugun bide bakarra.

## BOZKETAK IPAR EUSKAL HERRIAN

Frantzia aldean oraintsu izan dira bozketak;\* eta, batez ere Ipar Euskal Herrian, sozialistek egundoko gorakada eduki dute. Hauk, euskal abertzaleen laguntzarekin, nagusi atera dira Hendaian, Ziburun, Bokalen,\* Maulen, Atarratzen eta Zuberora osoan.

Dena dela, oraindik ere Ipar Euskal Herriko deputatu biak gaullistak izango dira, ezkertiarren botoak ez baitira aski\* izan, haienak gainditzeko.

## «ANAITASUNA» UDABERRIAN

Udaberria dator, eta, beraz, «Anaitasuna» txartela zeure automobilean txukun ipintzeko sasoa.

Lehengoa zaharturik baduzu, hona hemen nola ken dezakezun: gasolinaz bustiriko kotoi zati batekin igurtz ezaizu, bigun dadin. Jarraian, bizarra kentzeko orri batekin arraska txartela. Berehalaxe kenduko da, kristalari kalterik egin gabe. Gero, garbi ezazu kristala eta «Anaitasuna» berria jar.

## LAGUNTZA ESKE

ANAITASUNA hamabostero bidali behar dautzuegu, eta honek lan handia eskatzen dauku; sei mila ale ple-gatu behar, seiluak ezarri, eta abar.

Hamabostean behin guregana etorri nahi baduzu, eman ietzaguzu zeure izen-deiturak\* telefonoz (gure numeroa: 237449). Erdu,\* eta, euskal giro pozgarri batean, euskararen zabaltzearen alde lan egingo duzu.

## ZERUKO ARGIA-RI ZIGORRA

ZERUKO ARGIA euskal astekariari 25 mila pezetako multa ezarri diote, «Nafarroako Unibersidadeari eskutitz irekia» eta «Eliza euskalduna» artikuluengatik.

Berez euskal aldizkarien egoera ekonomikoa larria bada, honelako zigorrekin latzagoa egiten da. Beraz, pozgarri izango litzateke, denon artean euskal aldizkari horri laguntzea.

Lagundu gura izatekotan, haren zuzenbidea haxe da: Oquendo, 22 - San Sebastián.

## FILATELIA

Aurreko batean, Frantzia aurten argitaratuko diren seiluen zerrenda eman genuen. Hona hemen orain Espainiakoa:

Apirilaren 30: Europa (bi seilu).

Maiatzaren 5: Seiluaren nazioarteko eguna (seilu bat).

Ekainaren 11: Turismoa 1973 (pezeta batekoa, 8 milioi ale, bost seilu, hauen artean Oinatiko Unibertsitatea).

Uztailaren 17: Militar janzkiak (bost seilu).

Irailaren 14: Telekomunikabideak (seilu bat).

Urriaren 29: Pintoreak 1973 (8 seilu).

Urriaren 26: Silosko monasterioa (hiru seilu).

Hazilaren 6: Gabonak 1973 (bi seilu).

Abenduaren 11: Inprimeriaren V. ehunurteburua (hiru seilu).

## ALFERKERIA

«Más vale lo malo conocido que lo bueno por conocer» dio erdal esaera ezagun batek.

Ene ustez, esaera horrek mesede baino kalte gehiago egin du, gelditasunera eramaten gaituelako.

Zibilizazioa aurrera badoa, gauza berriak asmatzen eta aztertzen direlako da. Esaera horri jarraituko bagintzaizkio, beti lehengotan egongo ginateke.

Horregatik, gure artean alfer asko dagoelako, euskara batuak ez du behar aina\* abiadarik hartzen; eta, horregatik ere, ikastoletan hainbeste gurasok ez dute injustizien aurrean jarrera\* garbirik erakusten.

## GURASOAK ETA IRAKASLEAK

Familiak ondo iraun dezan, senar-emazteek elkarri errespetua eta laguntasuna zor diote.

Ikastolan ere, umeen heziketaren onerako, berdin jokatu behar lukete gurasoek eta irakasleek, elkarren osagarri eta lagungarri izanik. Elkarren artean ondo konpontzen ez badira, umeen kaltetan dabilta.

Baina beharrezko den konponketa horretara ez dira helduko, tematiak\* badira, batak bestea menperatu nahiz. Konponketa lortzeko, alde bakoitzak ahalegina egin behar du, bestearengana hurbiltzeko. Horrela eta ez bestela lortuko dugu, ikastolari, hain beharrezkoak dituen bakea eta eragintasuna ematea.

XABIER GEREÑO

bagintzaizkio, **bagintxakoz**  
dauku, **deusku**, digu  
dautzuegu, **deutsuegu**, dizuegu  
dezakezu, **daikezu**  
dezan, **daian**  
diote, **deutsoe**  
ietzaguzu, **eiguzuz**, itzaiguzu



# Gure Munduko Albisteak

## Liburu berriak

### «Giza-bizia». Carlos Goenak, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzial-ean.

Giza-bizia. Iztegia. Izenez ornitutako anatomi-irudiak (sic) tituluaz argitaratu berria du Carlos Goena jesuita mediku psikiatrak 241 orrialdetako hiztegi dotore bat, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa probintzialaren babesean. Liburu hau ezin apainagoa da eta itxuraz benetan atsegina. Azken partean, gorputzaren zati eta organo asko erakusteko, kolorezko irudi eder ugari dakartza, Felix Garridok eginak.

Ihaz Iruineko Banco de la Vasconiak Euskal izendegiaz egin zuzenez, Donostiako Aurrezki Kutxa honek ere ardura imitagarri bat erakusten du, euskararen alde honelako obra bat publikatzean.

Obraren mamiari gagozkiolarik, diogun, aita Carlos Goenari Josu Oregi eta Ambrosio Zatarain jaun euskaltzain laguntzaileek lagundu diotela hiztegi lanean, eta, oro har, orthographia batua darabilatela, h-ak letra molde ezberdinez inprima eraziz. Zorixarrez, obra honetaz esan dezakegun bakarra hauxe da: beragan ipini den duda gabeko borondate ona gorabehera, ederra bezain alferrekoa dela, eta, kanpokoak euskara teoriko baten distiraz liluratzeko ezik, Larra mendiren obraren gisa, deus gutirako balio dukeela.

Hiztegi tekniko bat barik, obra hau hiztegi hypertekniko superespezializatu horietariko bat da gehienetan. Ikus, esate baterako, daduzkan hitz batzuk: «Agujero cigomatico-orbitario» Masailalbotzulo-zulo; «arteria gastro-epiploica izquierda» Ezkerreko urdailbaresare-zaingorri; «circunvolución parietal ascendente» Goruzko bekoste-hildarte; «ligamento calcáneo-astragalino interóseo» Orpaz-hezur-tortolaxarteko lotura; «músculo esternocleidomastoideo» Mastoide ta bular-larako gihar; «sutura esfenocigomática» Esfeno-masailalbo-atxikune; «vaina sinovial bicipital» Giltzur-leka bikoitz (sic).

Esan beharrik ote dago, euskarak ez duela gaur egun hauen premiarik, eta honelako lan bat luxu huts bat besterik ez dela? Bestalde, Euskaltzaindiak berak, ikastoletako «egiazko» premiei begira, antzeko hiztegi bat (apalagoa, noski) moldatzen ari denean, ez ote da zentzugabe, honen gisako obra bat —hura kontuan eduki gabe— publikatzea? Ez ote zukeen hobe banku horrek, euskararen alde ezer egin nahi zuenez gero, partikular bati gabe Euskaltzaindiari berari diru laguntasun hori ematea? Irakurleak juzga beza.

Egiaren amorearren aitortu behar dugu, hitz arrunt gehienak ongi jarriak daudela; baina ba daude, eta eurrez gainera, nabari nabariro oker dauden hitzak. Esate baterako, gorpu ez da «cuerpo», «cadáver» baino (ikus Azkueren hiztegia), «cuerpo» esateko, gorputz hitza egonik. Leka landare batzuen fruituen azala da (indaba, baba edo ilarrena, kasu), eta jan egitekoa izaten da; baina osterantzeko «vaina»k (ezpata sartzekoa e.a.) euskaraz maginak deitzen dira, ez lekak. «Nervio» euskaraz «zain» da, eta ez kirio, eta abar, eta abar.

Liburu osoa garbizalekeriarik demasenez jantzita dator; baina nazioarteko hitz teknikoek dagokienez, aldiz, espainolaren hildotik dabila, maiz -a organikoak —zergatik ez dakigularik— kenduz. Honela gastralgia barik gastralgia dakar, psikhopatia barik sikopati, e. a. Zeharo zientifikoak diren hitzen kontuan ez dugu ulertzen zergatik ez zaion orthographian jarraitzen frantses, aleman eta ingelesaren kulturbideari, hitz horik herri arruntarentzat ez direnez gero.

Hiztegi honek, egia da, lan eskerga erakusten derauku, borondate on handia eta gogo ez ttikiago bat; baina, guztion zorixarreako, era guztiz utopiko eta ukhroniko batez moldatu da, egileei eskertzekoa badiogu ere. Euskara teknikoaren korapiloa ez da hiztegi konponduko, goitik behera, behetik gora baizik, irakaskintzarako testu liburuak agertu arauz, beharrak eskatu ginoan, hitz horik sorterez eta moldatuz baizik.

Diogun, bukatzeko, luxozko edizio bikain eta ongi inprimatu hau Industria Gráfica Valverde S.A.n egina dela.

Eskatzeko: Goena, Carlos, S. J.: Giza-bizia, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia, 1973.

## Zaragozako IV. Euskal Astea

Donostiako «Goizaldi» dantzari taldearen agerpenaz hasi zen, martxoaren 10ean, Zaragozako IV. Euskal Astea, Virgen del Carmen izeneko Unibertsital Kolegio Nagusiko estudiantek eratua.

Igandean Herri Meza bat egon zen, euskal musika tresnez lagundua. Astelehenean (martxoaren 12an) Xabier Lete eta Jose Anton Arze gaurko euskal poesiaz mintzatu ziren, bai eta kantu eta txalaparta saio bat eskaini ere.

Astearen barruan antzeko hitzaldiak eta arte erakusketak egon ziren, haietan GAUR artista taldeko obrak agertuz, Alberdi, Basterretxea, Mendiburu, Oteiza, Txillida eta Zumetarenak bereziki.

Zaragozan, Herriko Unibertsitatek ezaz, mila eta lautehun euskaldun unibertsitari inguru omen dago.

## Espainiak Txina, Txinak Espainia

Ezaguna dugu, jadanik, Espainiako gobernuak Txinako Herri Estatuari egin dion onharpena. Hainbeste aipatu ez dena, aldiz, beste hau da, hots, Maoren Txinak berak ere Espainiako gobernu nola onetsi duen. Alde bietatik dugu nagusi, beraz, «Realpolitik» delakoa.

Erreteriarren aurreusteak gorabehera, beharbada txino ikasi beharra ez zaiku hain urrun gertatuko.

## E.K.M.ko kultur eragintza

### Nacho de Felipe kantaria

Euskal Kultur Mintegiak antolatutako, martxoaren 13an, arratsean, Nacho de Felipek kantaldi bikain bat eskaini zeraukun Deustuko Unibertsitateko Paranymphean. Bere ekitaldiaren hasieran esan zuen, bera ez zetorrela «Ex Dok Amairu» taldeko kantariekin batera, berauek berarekin kantatzeari sistematikoki ukatzen diotelako, haren eritziz, horretan demokrazia bitxia erakutsiz. Kanta bakoitzaren aurrean, haren erdal itzulpena eta zenbait kontsiderazio ideologiko egin zituen Nachok, sozial arlokoek gehienak.

Opa izan zituen kanten artean, asko berriak ziren, batzuk Gabriel Arestiren poemen letrarekin. Dakusagunez —eta dantzugunez— bere kantategia eten gabe berritzen saiatzen direnetarikoak dugu Nacho.

Kantatzeko tankerari dagokionez, gure ustez, bilbotar gazte honen ahalmen apartak ditu, eta oso ederki daki kantarekin teknika menderatzen. Boz atsegina eta egokia berea, darabiltzan gaietarako. Euskara kontuan, aldiz, ohi ez bezalako eredu eta maisua da, hitzak ebakitzean jartzen duen ardura bereziagatik. Arlo honetan, bereziki, ba dute kantari askok Nachorengandik zer ikasi, zeren ongi erakusten baitu, nola kantak. mami bat doinu egoki batez adierazteko ezeze, baizik eta hizkuntza batua jendeagana helerazteko tresna bikain bat ere izan daitezkeen.

Bera entzuteagatik, Paranymphearen behealdea ia beterik egon zen, gazte jendea gehiena.

## J. M. Obieta irakaslearen hitzaldia

Martxoaren 14eko arratsean, Deustuko Unibertsitateko hitzaldi aretoan, aita Obieta jesuitak, Nazioarteko Zuzenbide irakaslea bera, mintzaldi bat eman zuen «Europako nazional minoriei» buruz.

Hartan esan zuenez, europar nazional minorien eta giza eskubideen aldeko lehen pausoa I. Mundu Gerraren ondoan egin zen, Versaillesko Tratatuaz. Dokumentu horretan, txeko, eslovako eta erruteniarren naziotasuna onhartzen zen. Praktikan erabaki haik ez ziren legeez bete, modu politiko maltzur batez baizik. Versaillesko Tratatuaren kontra gogorrenik ari izan zirenetariko bat Hitler bera izan zen, hura gabe Polonia eta Txekoslovakia erraxago konkistatzeko.

II. Mundu Gerra amaitzean, giza eskubideen aldeko dokumentu berri bat moldatu zen, beronen betetzeko ardura Nazio Batuek zuketela; baina hartan ez zen ezertarako minorien kontua aipatzen, giza eskubide jeneralak errespetatzea aski zelakoan. Praktikan ikusi denez, hori ez da egia, zeren giza talde batentzat egoki izan daitezkeen neurriak eta legeak (hizkuntza, kultura, autonomia, e.a.) beste talde ezberdin batentzat egokiak ez direlako. Belgikan, Britainian, Alsazian eta abar ikusi denez.



«Ez Dok Amairu» Deustuan

Andoren, Obieta irakasleak, Italian Tyroleko herrialdeak\* dituen lege berezitasunak aipatu zituen, ez kulturari eta hizkuntzari soilki, baizik eta politika arloan ere, bertan Parlamentu propio bat egonez. Amaitzeko, hizlariak esan zuen, Europa dela giza eskubide nazionalak ondoen errespetatzeko kondizioak dituen lurraldea, bertoko kultur tradizio komuna eta ekonomi aurreramenak oso handiak direlako. Honetan, baina, ez gaude hain konforme aita Obietarekin, zeren Europatik irten baita kontinente guztietara munduko kolonialismoak bortitzena\* eta lotsagarriena, eta gaur egun ere oso europarrak ditugu Ulsterko eta beste toki askotako gorabehera bitxiak.

Ekonomi askatasun soilak ez dirudi Herriak eta gizonak zoriontsuago egingen dituenik; eta horregatik beharrezkoa da, haren eritziz, hizkuntz, kultur eta autonomia politiko arloan ere askatasun handiago bat ematea. Areta betetzen zuten entzuleen artean, galdera asko egin zitzaizkion gai interesgarri baina juridikoegi honetaz.

### «Ez Dok Amairu» Deustuan

Martxoaren 15erako, ba zegoen programaturik Benito Lertxundi, Xabier Lete eta Mari Lurdes Iriondoren kantu saioa. Jendea eurrez\* bildu zen Paranymphean, halako moduz, non hestu eta larri ibili baikin mila pertsona inguru (% 98 gazteak) areto\* hartan sartu ahal izateko. Sekulako jendetza agertu zen bertara, eratzailak uste baino askoz ere gehiago. Beronek, nolabait, talde honek duen arrakasta\* eta fama on famatua erakusten derauku, halafede; ez da hain harrigarri, alde honetatik, jendea norengana datorren argiro bereiztu nahi ukatea.\*

Kantaldiari Benito Lertxundik eman zion hasiera, eta bat, bi, hiru, lau, bost eta asko, asko, askoz ere kanta gehiago kantatu zerauzkigun, halako moldez, non batzuk orduan betierekotasuna zer zatekeen\* ulertzen hasi baitziren. Zuberoko kantak botatzean, oso ardura guti jarri zuen hitzak behar bezala ebakitzeko,\* eta hau bera moduko kantari batengan akats larritzat jo daiteke. Politena, gure ustez, kantatu zuen Lizardiren poema izan zen; baina bestetan, murmurio\* ikutuak gorabehera,\* aspergarri xamar egon zen, jendearen eritziz. Gustu diskutigarri nabaria\* zuen, halaber,\* bere disko zaharren bidez jadanik\* ezagunak diren kantak jendaurrean berriro kantatzeak, guztiok dakigunez hori entzuleen xaloak erraxki biltzeko modua izaten baita.

Benitok ba du kantatzeko ahalmenik franko, eta boza ere egokia, gure ustez. Baina doinu kontuan ez da bere lehengo garaietatik hona batera aurreratu; eta ba dirudi, tehen\* behereko melodia monotono horietan finkatu dela. Kantatzeko moduan eta doinuen kreazioan berriztapen behar gorria du, zinez\* esanik.

Xabier Letek bere papera hobeki bete zuen. Ez da inorentzat sekretu bat, kantari honek boz nahiko xarra duenik; baina, uka ezinezko indar eta gizentasunez jantzia delarik, gustagarri zaiku askori.

Bere saioan konposizio berri asko agertu zituen, batzuk oso onak, tango kurioso bat haien artean, Marseillesaren errepikaz lagundua. Biziki eztabaidatua izan da unibertsitarien artean «Txano Gorritxo» delakoa, askok giltzapean daudenengatik (zuzen ala oker egon) halakoak esateari erraxkeria hutsa baiteritzote. Agian\* lekuz kanpo zegoen Txirritaren bertsoa, umoretsua bazen ere. Oso ona, Etxaparenen «Emazten fabore»-ren kantaldia. Honetan adosago\* gaude Leterekin Nachorekin baino, zeren, uste dugunez, klasikoaren poemak aldatzeko arrazoirik ez baita, eta esan zutena osorik errespetatu beharra dago.

Mari Lurdes, ilunpeetatik senarrari bere boz atseginaz lagundu arren, ez zen agertokian azaldu, dakigunez, azken orduko koordinazioz ezaz eta ondo ezik sentitu zelako.

Jendaurrean harrera ezin hobea duten arren, beldur gara ez ote den lehengo merituengatik gehienbat izanen, aspaldian «Ez Dok Amairu» moteltzen hasia baita. Herri kanta zaharrak eta poema klasikoak birpiztea ongi dago, baina gaurko egoerari erantzuten diotenak ere beharrezkoak zaizkigu. Musika arloan ere, ba dakigu, irauli ezik, hiltzea laster datorke.

### Unibertsitarien euskal tesinak

Askorentzat karrerak amaituz doaz; eta gauza jakina da, estudio ofizialen bukaeran gai bati buruzko azterketa lan bat presentatu behar dela, norberak egin. Lan honi tesina deritzo.

Tesina horik\* egiteko orduan, unibertsitari euskaldun eta euskaltzaleek —baten batek salbu—, gidari onik eduki ez eta, erdal gaitara jotzen dute maiz,\* euskal arloa landu beharrean, gureak baino nor jorra gehiago duen beste bat ikertuz.\*

Tesina aukeratzeko paradan\* dauden estudiantentzat, Euskal Kultur Mintegikoek, modu informal batez, hizketaldi bat eratuko dute buruz buru Luis Mitxelena jaunarekin, beronek, euskal alorra aztertzeko gogo dutenei bide eta ideia batzuk\* eman dietzen.

Hizketaldi hau apirilean izanen da Euskal Anthropologi Aste bitartean, Unibertsitatean bertan garaiz abisatuko diren egun, ordu eta tokian. Erne egon, bada, euskal unibertsitariok!



### Euskaldunoi buruz hortik diotena

Aurtengo martxoaren 12ko TIME astekarian (Europarako edizio berrian) etorkizuneko Europa batuaz artikulu merde interesgarri bat dator, haien artean minoriei buruzko bat, *The War within the States* (Estaturen barneko gerra) izenekoa. Hartan, gaurko Europaren barranean herri ttikiek dituzten problemek mintzo da, eta gutaz ondoko hau dio: *In their prospering industrial corner of north central Spain, some 2.000.000 dour, strong-willed Basques —«the alkaloid of the Spaniard», Philosopher Miguel de Unamuno called them— fret that hard work and efficiency have not brought them the recognition and cultural elbow-room that they feel they deserve in a still-autocratic society.*

Ingelesa dakienak uler beza.

### Iñaki Aurtenetxe apaizak 50.000 pezetako multa

Jakin dugunez, Iñaki Aurtenetxe apaizak, Sodupeko parrokoak, berrogei eta hamar mila pezetako multa bat jaso du agintariengandik. Gaztigu horren kausa, aurtengo otsailaren\* 26an, Jose Antonio Etxebarrieta abokatuaren hiletan egin zuen sermoia izan da.

### Iparraldetiko oihartzunak\*

#### «Laborariak»: poesi eskuskribu ezezagun bat

Martxoaren 8ko HERRIA aldizkarian irakurri dugunez —eta, oso oker ez bagaude, G. Lantziri idazkideari esker—, Uztaritzeko liburutegian *Laborariak* izeneko eskuskribu bat aurkitu da oraintsu, Martin Hiribarrenek joan den mendean egin; eta ba daduka bi mila bertso baino gehiago, baserritarren bizimoduaz eginak.

Dakikegunez,\* Martin Hiribarren Azkainen jaio zen 1810. urtean eta Urruñako apaiz izan, 1866.ean hilez. Hari *Eskaldunak* izeneko poesi lana zor diogu, 1853.ean agertua, Orixe-renaren aitzindari,\* eta, aita Mokoroak bere *Genio y Lengua* dioenez, Orixe bere *Euskaldunak* idaztean hura\* ezagutu ez arren, herritasunak horretaraturik edo, ba omen dute poema liburu biok elkarren antz nabaria.\*

Ba dirudi, aita Zavalak, aita Lafitteren hitzaurre batez horniturik, «Auspoa» liburu sortan argitaratzeko asmoa duela. Gure eskerrak bioi.

ARMENDARITZ

beza, bei	lezan, leian
daude, dagoz	zaiku, jaku, zaigu
derauku, deusku, digu	zaio, jako
dezakezu, daikezu	zaizkigu, jakuz
diegu, deutsegu	zeraukun, euskun, zigun
dietzen, deioezan, ditzaien	zerauzkigun, euskuzan, zizkigun
dio, deuso; dino	zion, eutson
diogun, esan dezagun (daigun)	zitzaizkion, jakozan
diote, deutsoe; dinoe	zizkieten, eutseezan
gaude, gagoz	



# GIPUZKOA

## 4. POLITIKA ERAKUNDE ZAHARRENA (I)



Gipuzkoako politika erakunde<sup>o</sup> zaharretan ba dugu altxor<sup>o</sup> interesgarri bat, haien eskualdekatzea<sup>o</sup> istudiatzeko. Gipuzkoak, nahiz eta hainbeste eskualde<sup>o</sup> konkreturik izan ez, izan ditu han eta hemen, era batera eta bestera, eskualde mota batzuk.<sup>o</sup>

### OIARTZUN HARANA

Haranetatik<sup>o</sup> hasten bagara, lehenik Oiartzungo harana aipatuko dugu. Gorosabelek dioskunez —eta beroni jarraitzen gataizkio gehienbat—, Oiartzungo haranak poblazio hau<sup>o</sup> hartzen zituen: Hondarrabia, Irun, Lezo, Ekialdeko<sup>o</sup> Pasaia, Orereta, Elizalde, Iturriotz eta Altzibar. Hondarrabiak, hiri egin zenean, berekin Irun, Lezo eta Ekialde mandako<sup>o</sup> Pasaia (gaurko Pasai Donibane) eraman zituen. Oreretak, 1320.ean Oiartzungo Hiriberri izenarekin hiri bihurturik, bere barrutian Elizalde, Iturriotz eta Altzibar hartu zituen. Denborarekin, Irun, Lezo eta Ekialdeko Pasaia Hondarrabiatik aldendu ziren. Era berean, Oiartzungo Hiriberriatik aldendu ziren beste hiru baserri herriak, eta eskualde osoaren Oiartzun izenarekin gelditu; Oiartzungo Hiriberri, ordea, Errenteria izen soilarekin geratu zen. Eskualde historiko honek, aurrera aipatu bezala, leinu,<sup>o</sup> euskalki<sup>o</sup> eta eliz aldetik ere kidekotasun berbera izan du.

### HERNANI HARANA

Hernaniko lurra izenarekin aspaldi agertzen da eskualde hau, X. mendetik bai behintzat. Haren barrutian<sup>o</sup> lurralde hauk sartzen ziren: Urumea hibiaren behe aldetik, gaurko Hernani hiria, Astiga-

rraga, Altza, Donostia eta Urnieta; eta Lasarte aldetik Oria hibiaren aho aldea, Usurbil eta Ornio. Eskualde historiko honek, nolabait, gaurko Donostia aldea eta Beterriaren beheengo aldea hartzen zituen.

### IRAURGI HARANA

Haran honek gaurko Azkoitia eta Azpeitia eta hauen barrutiko herrixkak hartzen zituen: Urrestilla, Nuarbe, Urrategi eta abar; beraz, Urola arroaren<sup>o</sup> erdi aldea.

### MARKINA HARANA

Gure ustez, Markina eskualdea, Durango aldea, Lenitz eta Aramaio, hasiera batetan, gaurko euskal herrialdeak<sup>o</sup> nagusitu artean, ez ziren ez Bizkaia ez Gipuzkoa ez Araba. Gero, bakoitzak edo batera edo bestera aukera bat hartu behar izan zuen. Durango aldea Bizkaian sartu zen bere berezitasunekin, Lenitz Gipuzkoan, eta Aramaio Araban. Markina, ordea, zatitua gelditu zen. Artibai arroko aldeak Bizkaiko merindate bat osatu zuen; eta haren barrutian sortu zen hiriak, nahiz eta Ibita tokian jaito eta erregeak «Villaviciosa» izena eman, eskualdearen Markina izenaz jabetu zen. Deba arroko Markina aldeak gaurko Eibar, Soraluze eta Elgoibar hartzen zituen. Mendaroko haranttoa ere bere barrutian gehienbat edukiz.

Markina eskualde honek, bai gaur Gipuzkoa denak eta bai Bizkaia denak, ba du gaur ere euskalki batasun bat, aditzean esate baterako. Elgoibar zen eskualde osoaren hiriburu. (Haren izena, erre-



# Aditzaren Batasunaz

Nahiz tituluak ba dirudien gauza sakonez eta konplikatuaz mintzatuko naizela, ez da horrelakorik.

Aditza estudiatzeko neure ordutxoak sartu baditut ere, ez naiz oraindik honelako gaiak teknikoki aldizkarietan idazteko mailara heldu, ene eritziz. Baina azken aldi honetan, teknikaz (linguistikaz) kanpoko arrazoiak ere erabiltzen eta baliagarritzat hartzen hasi direnez gero, neure burua kapaz ikusten dut, publikoki ene eritzia agertzeko.

Euskaltzainburuak jakin erazi daukenez, batasunaren arazoa linguistikazkoa da soilik. Aditzaren batasunaz azken aldi honetan bi sistema ziren eztabaidatuak, Lapurdikoa eta Gipuzkoakoa. Lapurdiko sistemaren hobetasunaz ez dut uste inor kontra mintzatu denik, kategoriako jaunaren artean behintzat. Gainera, Lapurdiko sistemak, Gipuzkoakoa baino hobea izatetik gain, ba du beste gauza bat: ez dela Gipuzkoakotik ia batere bereizten. Hobea izan, eta diferentzia handirik ukan<sup>\*</sup> ez. Beraz, ba dirudi, normalena eta diskusiorik gabe onhartzekoa lapurtarrena dela.

Baina ba dira, norbaitzuen eritziz, linguistikatik kanpo beste arrazoi batzuk<sup>\*</sup>: soziologiaren arrazoiak, alegia.<sup>\*</sup> Nik onhartzten ditut soziologiaren arrazoiak; eta horrexegatik idazten dut, hain zuzen ere, artikulu hau.

Hain arzoitsuak ez diren zenbaiten arrazoi soziologikoek honela dioskute: nahiz dudarik gabeko izan lapurtar sistema dela onhartu beharrezkoa, giputza onhartu behar dugula, zeren<sup>\*</sup> bestela diferentzia ttipi hori ikasi beharra ezinezkoa litzaiokeela Gipuzkoako herriari, trauma bat sortuko litzaiokeela eta orduan Gipuzkoan euskara galduko litzatekeela, eta euskara akabo.

geak eman ziona, «Villamayor de Markina» edo «Markinako Huri-nagusia» zen). Izan ere, Elgoibarrek beti izan du arro bateko eta besteko Markinarren eskualde nagusitasuna edo nolabaiteko hiriburutza. Ikusia dugu, eliz zatiketaren hala zuela. Eta gaur egun ere ba du, eskualde osoarentzat aspalditik merkatu- eta feri lekua delako. (Azken zehaztasun honek, geografo askoren eritziz, inportantzia handia du, eskualde baten hiriburutasuna baloratzerakoan).

## LENITZ HARANA

Gaur egun metatesi batez Leintz bihurturiko izena duen haran honek, hurrengo lurralde hau hartzen zituen: Gaurko Gatzaga, Eskoriatza eta hauen barrutiko zazpi elizaldeak<sup>\*</sup> —Zarimutz, Marin, Mazmela, Mendiola, Bolibar, Apotzaga eta Gellano; Aretxabaleta eta beronen beste zazpi elizaldeak —Aozaratza, Goronaeta, Larrino, Galartza, Izurieta, Arenatza eta Arkarazo; Arrasate<sup>\*</sup> eta beronen gaurko barrutiko bost elizaldeak —Uribarri, Udala, Garagartza, Gezalibar (Santa Ageda) eta Bedoña.

Gainera, Lenizko haranak elizaz bereak zituen Angiozar, Elgeta, Antzuola-Usarraga, eta gaur Bergara diren Oxirondo (Santa Maiña) eta Ariznoa (San Pedro). Eta nik esango nuke, bestela ere herri horik<sup>\*</sup> eta Oinatzi bera noizbait Lenitz haranekoak izan zirela, gaur agliririk<sup>\*</sup> ez badugu ere, Eliz zatiketaren aintzinakotasunak, euskalkiaren kidekotasunak eta Deba arro garalaren<sup>\*</sup> nolabaiteko batasunak ematen digute hipotesi hau egiteko eskubidea. Orain berrogei urterarte, Elgetaren eta Arrasateren muga, Kanpazartik behera doan Epele erreka zen, San Prudentzio baino gorago Deba hibiarekin bat egiten duena. Mugu komentzionala, gure ustez. Aramaio guztia, Oleta izan ezik, Arabarra baino gehiago Leniztarra dela esango genuke, gaur bertan ere; eta hala izan ziren elizaz, hain zuzen ere, joan den menderarte. Oletakoa salbu, beste zortzi parrokiak.

J. L. LIZUNDIA

digute, **deuskue**, deraukute  
diosku, **dinosku**, esaten digu  
gatzazkio, **gatxakoz**  
zion, **eutson**

Nik, lehenik uste dut, Gipuzkoako herriak hola baino maila handiagoa duela, eta ez litzaiokeela ez ezinezko egingo, ez eta traumarik sortuko, eta gutiago azkeneko puntu lazgarrira<sup>\*</sup> helduko. Soziologia horrek, deus<sup>\*</sup> erakustekotan, uste dut zenbaiten alferkeria, harrokeria (ez harrotasuna), probintzikeria eta buruzagikeria erakusten daukula. Giputzaindiaz bat baino gehiago mintzatu da, eta ez Bizkaian bakarrik.

Zeren<sup>\*</sup> soziologiako zientziari begiratzen hastekotan, ba dirudi ikuspegi batetik baino ez diogula begiratu, besteak bazterturik. Soziologiarekiko konklusioak ateratzeko tenorean<sup>\*</sup> Gipuzkoari dagozkion puntuak ikusten ditugu, beste lekuetan ba direnik ere axolatu<sup>\*</sup> gabe. Bizkaian ere, behintzat, ba ditugu horrelako arazoak.

Nahiz gauza ezaguna izan Bizkaiko aditza Gipuzkoakoa baino hobea dela, ez dugu orain arte ahorririk zabaldu kexatzeko, Lapurdikoa euskaldun guztion onerako egoikiagoa delakoan. Aditzetik bestalde ere, ez gaituzte kontuan eduki; baina, hala ere, ez dugu gehiegi protestatu. Euskara batuak kanbiorik gehien eta bortitzen<sup>\*</sup> guri eskatzen eta esijitzen dauku; eta konforme gaude horretan. Ezin duguna onhartu hauxe da: soziologiako arrazoi mantxu<sup>\*</sup> batzuen kausaz, gogorik ezari paso libre uztea. Eta orain arte ixilik egon bagara ere, besteek arrazoi soziologikoak ateratzen dituztenez gero, guk ere geureak agertzeko eskubidea dugu, eta, ixilunea apurturik, asaldatzen<sup>\*</sup> hasteko mementoa ere heldu zaiku.

Bai eta ere, soziologiako arrazoiak apelaturik, bizkaitarrok (bizkaieraz mintzaten garenek) Euskaltzaindiari eskatzen diogu, gure arrazoiak kontuan edukitzeko. Hainbat gauzatan lapurtera guretzat errazago denez gero, eta bai fonetikazko berdintasunak kontuan edukirik, guk lapurtera nahiago dugu, arrazoi printzipalena ere ahantzi<sup>\*</sup> gabe: proposatzen diren bi sistemetarik onena dela.

## ERRAMUN GERRIKAGOITIA

dauku, **deusku**, digu  
diogu, **deutsagu**  
dioskute, **dinoskue**, esaten dau-  
kute (digute)  
gaude, **gagoz**  
zaiku, **jaku**, zaigu



DANTZATOKI GOXOA Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra  
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

**SOINU KOADROFONIKOA**

KAFETEGI **AMALUR** RESTAURANTA



# Langileen Arteko Bereiztasunak

Langileen arteko desberdintasunik haundienak fabrika handietan agertzen dira.

Ikus ditzagun diferentzia horik.\*

Hemen Bizkaian, 1972.eko martxoan, hauk\* izan ziren, enpresa handi bateko langileek jaso zituzten alokairuak:\*

10.000 pezeta baino gehiago . . . . .	160 langilek.	
(Hauen artean, gehien irabazi zuenak, 12.000 pezeta altxatu zituen)		
10.000 pezeta . . . . .	50	»
9.600 » . . . . .	120	»
9.500 » . . . . .	55	»
9.400 » . . . . .	50	»
9.250 » . . . . .	120	»
9.100 » . . . . .	90	»
8.500 » . . . . .	60	»
8.000 » . . . . .	70	»

Guttien irabazten dutenentzat, hilabetako prima edo lansaria\* %35 da. Gehien irabazten dutenentzat, berriz, %40.

Gainera alokairuei zerga edo inpostu batzuk kendu behar zaizkie, irabazia guttitzuz.

Eta, hori aski\* ez balitz bezala, prima ere aldatu egiten da hilabetero. Primak ez du zerikusirik produkzioarekin. Esate baterako, ihazko otsaileko\* prima 500 pezetatant guttitzu zen, eta 1.500 pezetatant martxokoa. Zergatik diferentzia hori? Batek daki!

Bestalde, iragan urrian, alokairua 1.000 pezetatant gehitu zen: %60 oinharritzko alokairuan eta %40 priman. Hau, tranpa bat baino ez da, gehitze hori oinharritzko alokairuan bakarrik izan behar litzateke eta.

Ikusi duguna, langileen artean jazotzen\* dena da.

Enpresa handietan, langileez gainera, enpleguak izaten dira.

Sestaoko «La Naval» enpresan, adibidez, 1.300 enplegatuak lan egiten dute guti gorabehera.

Bizkaiko egunkariek ez dute ezer esan; baina ba dakigu, «La Naval»eko grebalarien\* artean 45 enplegatu bakarrik daudela.

Edozeinek (edozein langilek, noski) galde diezoke bere buruari: **Zergatik hori? Nola heldu gara egoera triste honetara?** Erantzuna aspalditik datorkigu.

Kapitalistak geroago eta ikastenago\* ari dira. Ba dakite, berentzako gauzarik txarrena langileriaren batasuna dela. Ba dakite, langileen arteko lokarria eten egin behar dutela. Eta, horretarako, edozein bide dateke\* on.

Hona hemen zer egiten duten. Lehenik, izenez bereizten dituzte langileak: batzuk langile arruntak\* dira, beste batzuk enpleguak. Arropaz ere, holako fabrika batetan sartzen den edonork ikus dezake haien arteko diferentzia: langileek lohihartzekoa\* daramate soinean, enpleguak, berriz, gorbata. Soldatak eta lansariak\* ere desberdinak dira. Leku askotan, lanorduak ere diferenteak. Bai eta opporraldiak ere.

Eta enplegatu askok, desberdintasun hauen azken xedea\* susmatu arren, azkenean onhartu egiten dituzte beren aldeko abantailak\* eta bereiztasunak.

Baina finean zer? Finean «La Naval»eko egoera lotsagarria: langileak grebatan,\* beharrezko errebindikazioak eskatuz; eta enpleguak, kapitalisten alde, fabrika lan egiten.

Gainera, langileak garaile gertatzekotan, enpleguak ere berdin gertatuko lirateke: kontraesanen artean, kontraesanik kontraesanena!

Zergatik jokutzen dute horrela enpleguak? Arrazoi askorengatik. Batzuek, oso beldur direlako. Beste batzuek, ofiziorik ez dakitenez gero, fabrikatik bota egiten dituztelakoan daudelako. Hauek, bizimodu on bat lortu dutelako. Horiek eta haiek, «pelotak» direlako. Eta abar, eta abar.

Bestalde, langileek ba dakite, enplegatuena jokaera hau, kapitalistek gura duten jokaera bera dela. Horregatik, nahiz eta enpleguak, langileen klasekideak izanik, nagusien alde dauden, berak —langileak— grebatan daude. Zergatik hori? Funtsezko\* problemak kapitalistengan daudelako, eta ez enpleguengan.

Baina enpleguak zer gehiago erdietsiko\* ote dute? Noraino, zein egoera lotsagarriraino helduko ote dira?

Berek dute hitza, beren xanda\* baita.

Gure partez, hauxe besterik ez: Enganiaturik zaude ten arren, ez ezazue ahantz. gutarikoak zaretela!

ANTSO

1973.eko martxoaren 2an

daramate, eramaten (eroaten)

dute

daude, dagoz

dezake, dzake

diezoke, deiskio, dezaioke

ditzagun, daiguzan

zaizkie, jakez

zaudete, zagoze

**ANAITASUNA Bizkaia**

**Hamabosterokoa.**

**Zuzendari ordezkio:** Imanol Berriatua.

**Idazkari:** Josu Torre.

**Bulegoa:** Pelota, 4-1.º - Bilbao-5.

**Imprimatzaile:** AMADO, Mazarredo, 35 - Bilbao-10.

**Moldatzaile:** RALI, Particular de Costa, 12-14, 3.º - Bilbao-10.

**XX. urtea.**

D.L.: BI-1.753 - 1967.



# EUSKAL HERRIKO PIZTIAK:

## KATUA ETA BASAKATUA (6)

Ikastolako maisuak etxean katuari buruzko idazketa bat egiteko agindu deutse eta, Eneko **Pitxitxi**ri begira dago, zelan\* hasi eta haren inguruan zer esan ez dakiala. **Pitxitxi**k bere begi loguratsuez begiratzen dau mutikoa, eta «miao» apal bat egiten deutso, horretan ezin lagundu leiskiola esan nahi baleutso legez.\*

Azkenean —ba zan ordua!— osaba Martin guzti ahaldua etorri da etxera, eta mutikoa, boligrafoa eta papera eskuan, harrangana abiatzen da, katuei buruz berba egin deion.

—Astegunez ere ez nozu utziko, Eneko? —dinotso osabak irribarrez. Espelikazio guztiok kobratu beharko baneutsuz, diru pilatxo aterako neuke, ez dozu uste?

—Bai, osaba, bai! Baina ba dakizu zer pasatzen jatan? **Ikastolarako lan bat egin behar dot, eta... zuk zeuk katuen bizitza kontatuz gero, ba\*... oso idazketa polita egingo neuke, eta beharbada maisuak guztien aurrean irakurtzeko esango leuskit.**

—Ondo dago. Kontatuko deusut. Baina orain ekar eistazuz etxeko abarketak eta poxpolu batzuk sukaldetik, pipa hau pizteko.

Esan eta egin. Berehalaxe dator gure mutikoa, osabak agindurikoekin; eta berau, ordainez, katuez hasten jako hizketan.

—Hara! Ez dot gura, dinodan guztia paperean orain ipini daizun. Utz eizuz paper-boligrafook hor mahai gainean, eta entzun ondo. Gero, gogoratzen dozuna idatzi, eta kito.

—Bai, osaba, bai! **Horixe egingo dot. Gauza bat itaundu nahi deusut, hasteko. Etxeko katuak basakatuengandik sortuak ote dira?**

—Nik neuk ere basakatuen bizitzaz hasteko gogoia neban, eta asko pozten naiz zerorrek galdera hori egiteaz. Begira! Basakatuak luzeran 60 zentimetro ditu gorputzez et 30 zentimetrotako buztana.

Larrua grisa edo arrea\* izaten da, goitik beherako lerro beltz zabalez; sabela, berriz, zuriska. Buztana etxeko katuena baino zabalagoa da eta eraztun beltzez hornitua. Daukan pisua, bost kilotik hamar kilora artekoa izaten da.

—**Eta non bizi dira? Asko dagoz Euskal Herrian?**

—Basakatua oso ugari dogu oraingoa geurean, Europan ia zeharo desagertua izan arren. Basoetan, oihanik\* sakonenetan eta bai Nafarroako lur agiriagoetan ere bizi izaten da, gordezeko zuhaixkak\* eta sasiak egonez gero. Altuben, Aralarren, Urbanen eta Piriniotan asko bizi dira.

—**Eta zer jaten dabe? Sagurik?**

—Bai, baina basokoak. Horreez gainera, txoriak, txorikumeak, arraultzak. erbiak, hegaztiak eta bestelako piztiatxoak. Batzuetan erreka ondoetan egoten dira, eta ur azaletik dabiltzan arrainak harrapatzen ditue. Ehizan\* ari direnean, salto bat egiten dabe animaliairen gainera eta hatzaparren kolpe batez bizkarrezurra apurtu. Gehienetan, arratsean eta gauean ibiltzen dira, beti ixilik. Gizonak eta bera baino piztia handiago batek erasotzen\* deutsonen, ileak tente jartzen ditu eta purrustada ikaragarriak egiten, bere hankekin erpakada gorrak botaz.

—**Non egiten dau habia?**

—Edozein zulotan. Emeak udaberrian lau edo bost kumetxo egiten ditu, eta orduan zuhaitz zulo batetan gordetzen ditu.

—**Noizdanik\* dauke gizonak basakatua etxean, osaba?**

—Hara! Horretan oker zagoz. Zure **Pitxitxi** hori ez da Euskal Herriko basakatuen jatorrikoa.

—**Ez? Nik baietz uste neban.**

—Europako katu guztiak Arabiatik ekarritakoen ondorengoak dira; eta, egia esateko, oraindik ez dira hainbeste urte pasatu, etxeko katu ezagutzen danetik hona. Erromatarrek ez eben Jesukristoren denboran katu erabiltzen, etxeko saguak hiltzeko, **lepazuria\*** eta **katamuturluzea\*** baino. Erdi Haroan ere, ezagutzen bazan ere, ez zan izaten oso ugaria katu. Orain berrehun urte inguru hasi zan zeharo zabaltzen Europa osoan.

—**Orduan, Pitxitxi gurea arabiarra da? Horrela bada, Pitxitxi barik\*** Mustafa deituko dot.



—Egizu nahi dozuna. Baina jakizu, **Pitxitxi**ren asabak Egiptoko faraonen jauregietan bizi zirela eta animalia sakratutzat eukezala bertan, jendea saguetatik libratzen ebelako. Hiltzen zirenean, gainera, balsamoz igurtzi eta momia gisa ipintzen zituen. Nik neuk, nabigatzen hasi nintzanean, **Al\*** Kahiroko museoan holantxe ikusi nituan.

—**Eta mendiko basakatu batek kumerik egin leike etxeko katueme batekin?**

—Bai. Eta kume horreek oso katu handiak eta ederrak izaten dira; baina ez dabe inoiz lortzen egiazko basakatuen buztan lodi ederra.

—**Zer beste izenik dauka katuak?**

—Euskaraz gehienok katu deitu arren, iparraldeko euskaldunek **gatua** ere esaten deutsoe. Gaztelaniaz **gato**, eta frantsesez, berriz, **chat** (=xa). Zientzi izena hauxe da: **Felis catus** eta **Felis sylvestris**.

—**Beno, osaba! Eskerrik asko! Nahikoa dot horrekin. Ikastolarako lana egiten hasiko naiz. Eta, hi, Pitxitxi-Mustafa, entzun dok zenbat gauza jakingarri kontatu deuskuzan osabak heure familiakoez? Nork esango eban hain inportantea hartzela, txo!**

### TRAUKO

baleutso, **balio**  
beneutsuz, **banizkizu**  
dabe, **dute**  
daizun, **dezazun**  
dauke, **dadukate**, **daukate**  
deion, **diezun**, **dezaion**  
deuskuz, **dizkigu**  
deutse, **die**  
deutso, **dio**  
deutsoe, **diote**  
deusut, **dizut**  
dinotso, **diotsa**, **esaten dio**

eban, **zuen**  
eben, **zuten**  
eistazuz, **ietzadazu**, **itzaidazu**  
eizuz, **itzazu**  
eukezan, **zeduzkaten**, **zeuzkaten**  
jako, **zaio**  
jat, **zait**  
leike, **lezake**  
leiskio, **liezoke**, **lezaioke**  
leuskit, **lidake**  
neban, **nuen**  
zagoz, **zaude**



# «La Naval»

## lantegiko gatazka

Bizitzaren garestitasuna eta prezioek iragan\* urtean egin duten gorakada haintzat harturik, alokairu\* egoki eta araberako\* bat eskatzea pentsatu zuten Sestaoko «La Naval» enpresako langileek.

Zenbat eskatu behar zen erabakitzeke, batzar zabal batzuk egin zituzten joan den urtarril\* osoan (astean bat edo bi).

Enpresa, bere aldetik, 1972. urteko alokairua %8 gehitzeko prest zegoen. Hala ere, langileek, gehitze hori guti zela deliberatu ondoren, hilabete bakoitzeko, 3.000 pezeta gehiago ordaindu behar zitzaizela erabaki zuten. Eskabidea horrela egin zen. Gainera, alokairuen igoera horrek langile guztientzako berdina izan behar zuen, prezioen igoera ere denontzako berdina baitzen.

Lantegiko nagusiek honela erantzun zuten: alokairua %10 goratuko zutela eta urtearen barruan 6.000 pezeta eskupeko bezala emanen.

Eskaintza hau eskasa zela kontsideraturik, langileek «sugea» delakoa egin zuten fabrikari, eta, besterik gabe, batzarrera etorri ez ziren langileak eta kontratakoak haien aldera pasatu ziren.

Batzarrekoek agiri bat bidali zien Bilboko egunkari guztiei, lantegiko gorabehera guztiak azalduz.

Egunkariak berririk eman ez zutelako, goiz batez periodiko pila haundi bat apurtuta agertu zen lantegiko bulegoen\* aurrean.

Langileen gatazka\* haundituz zihoala konturaturik, eta giro hau behin batez deuseztatu\* nahirik, epresakoak jendea kalera botatzen hasi ziren: lehenik hiru egunetarako, gero zazpi, berriro zazpi, eta otsailaren\* 24ean bi hilabetetarako.

Azken zigor hau ikaragarrikoa izan da, zeren\* bi mila langile horrenbeste egunetarako soldata gabe uztea ez baita txantxetako gauza.

Otsailaren 20an, Sestaoko sindikatuan, Bizkaiko sindikal agintariek, langileei dei egin ondoren, giza talde haundi baten aurrean berba egin zuten.

Hurrengo egunean, otsailaren 21ean, Sinudikatuaren jokia eta haren zeregina aipatu zen batzarrean. Sindikatutik kanpo jarraitzea erabaki zen eta lehen bezala segitzea.

Batzar berean, Nafarroako apaizen homilia ere irakurri zen, eta han esaten zena denok ados\* onhartu zuten. Egindako batzarrak, 26 edo izan dira.

Bizitzaren garestitze honi buru egiteko, beste lantegi gehiagotan ere izan dira gatazkak, esate baterako, «Euskalduna», «Babcock-Wilcox» eta «General Eléctrica»n, hain gogorak izan ez arren. Fabrika hauetan ere, ba dira lan gabe geratu direnak.

Egoera honi erantzun bat eman nahiz, Bilboko Gotzainak ere dei bat egin du, eliza guztietan dirua bil dadin, kalean lanik gabe dauden langileei eta haien familiei laguntzeko.

Oharra: Ez dakigu, informazio hau agertzen deneko, «La Naval»eko gatazka zer egoeratan izango den. Hala ere, orain arteko gertakarien publikatzea beharrezkoa iruditatu zaiku.

BARRENETXEA

1973.eko martxoaren 6an

## Geure ONGI ETORRIA ematen dizuegu Arriagako Plazan, 1

Hemen gaituzue, behar duzuen edozein zerbitzutarako

**OPORRALDIAK**

**TREN**

**UNTZI eta  
HEGAZKIN  
TXARTELAK**

**EZKONBERRI BIDAIK**

**ARAZO BIDAIK**

**HOTEL ERRESERBAK**

**XOFER GABEKO  
AUTOMOBIL  
ALOKATUAK**

**AUTOPULLMAN  
ALOKATUAK**

**GALDE EGIGUZU!!!**



**VIAJES  
ECUADOR**

“BILBOKO BIDAI AGENTZIA”

BILBON: Luchana, 1 - Tel. 24 67 15

M.ª Díaz de Haro, 5 - Tel. 41 68 62

Aireportuan

Arriagako plazan, 1 - Tel. 24 24 68

BARAKALDON: Juan S. Elcano, 6 - Tel. 37 42 90

34 bulego geure bezeroen zerbitzurako

(G. A. T. n.º 68)



## HAU DUK UMOREA

Koartelean bi soldaduk —euskalduna bata, galegoa bestea— koronelaren zakurra ikusten dute ingurutik, eta haietako batek harrikada bat botatzen dio. Zakurra, minzko xilioak eginez, ba doa handik; eta, haik\* entzutean, koronelak leihotik bi soldaduei beragana joateko agintzen die.

Sartzen da haren gelara euskalduna eta ba diotso: **Egun on!**

Hori entzutean, galegoak, atzetik, berehalaxe bota zuen: **Eu tampoco!**

...

Adiskide batzuk etxera etortzeko dira, eta emazteak ba diotso senarrari:

—Jose, ez itzak euritakoak hor ate ondoan utz.

—Zer. ba? Ohostuko ote dizkiguten beldur haiz ala\*?

—Ez, baina... beharbada ezagut ditzaketela pentsatzen ziat.\*





GURUTZEGRAMA (17)

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2					█					█
3						█				
4	█					█	█		█	
5	█	█		█					█	
6							█			
7								█		
8					█	█			█	
9	█					█				
10			█						█	

**Ezker aldetik eskuin aldera:** 1. Liburuak gordetzen diren lekua.—2. Bihurria. Burruka.—3. Zapart egin, zartatu, iztanda egin (alderantziz eta infinitiboan). Jakin aditzaren forma.—4. Deus (alderantziz). Kontsonantea. Kontsonantea.—5. Kontsonantea. Urtsua, ura duena. Bokala.—6. Lilitu (alderantziz). Galdeetan, bi hitz bereizteko erabiltzen da.—7. Mendi arteko zelaia (alderantziz eta pluralean). Emea ez dena.—8. Itxura, irudipen. Izan aditzaren forma (alderantziz). Kontsonantea.—9. Hila ez dena (alderantziz). Arloa, lur saila (alderantziz).—10. Ukan aditzaren forma (alderantziz). Itzulia. Kolpeak eman (alderantziz).

**Goitik behera:** 1. Erdietsi (infinitiboan). Inork esanda-koari ezetza eman (infinitiboan). Bokala.—2. Aztertu, arakatu (infinitiboan). Ukan aditzaren forma (alderantziz).—3. Beheko alderantz.—4. Ortzia (alderantziz). Gizonek aurpegian dute (alderantziz).—5. Kontsonantea. Hezetasunik gabea, idorra. Zenbakia.—6. Izenorde pertsonala (alderantziz). Bihia, garaua (alderantziz). Kontsonantea.—7.— Ukan aditzaren forma (alderantziz). Kontsonantea. Leku hartara.—8. Edaten duena (artikuluarekin). Nota musikala.—9. Izenorde pertsonala (aktiboan). Nota musikala. Gauzez egiten dugu.—10. Bokala. Segitu (alderantziz).

AZALPENA. Ezker aldetik eskuin aldera: 1. Liburute-gi.—2. Oker. Gudu.—3. Leher. Dak!.—4. Ezer. L. K.—5. R. Heze. I.—6. Loratu. Ala («hau ala hori»).—7. Haranak. Ar.—8. Antz. Da. R.—9. Biz. Alor.—10. Du. Bira. Jo. Goitik behera: 1. Lor. Uka. U.—2. Iker. Dinat.—3. Beherantz.—4. Zeru. Bizar.—5. R. Lehor. Bi.—6. Gu. Ale. R.—7. Dut. Z. Hara.—8. Edalea. Do.—9. Guk. La. Lo.—10. I. Jarralki.

HIEROGLYPHIKOA



Nola ikasi du euskara?

EUSKAL SALDA

E	U	C	A	D	A	G	U	I	L
O	Z	O	S	O	P	O	L	A	K
R	I	K	E	X	I	I	B	I	A
B	I	D	A	S	O	A	T	N	D
E	I	E	Z	A	Z	O	E	R	I
H	E	B	M	I	R	R	U	T	A
E	M	A	A	E	N	G	I	Z	A
U	N	B	T	E	N	D	A	N	K
A	I	N	T	Z	A	T	E	D	U
H	Z	U	I	T	U	R	B	E	L

Goiko koadro horretan Euskal Herriko zazpi hibairen izenak daude, zuzenean jarrita. Aurkituko ote dituzu? Kontuan hartu behar duzu, eskuinetatik ezkerretara, ezkerretatik eskuinetara, goitik behera, behetik gora edo eta zeharretara, diagonalean ere. egon daitezkeela, bai eta elkarren artean gurutzaturik ere.



HYEROGLYPHIKOAREN ERANTZUNA:

Liburutik ikasi du

EUSKAL SILDAREN ERANTZUNA:

Ebro, Ezka, Arga, Deba, Aturri, Bidasaia, Hibaizabal



# HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

## Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

ABANTAIL, **ventaja**.  
 ABURU, eritzi, **uste**.  
 ADOS konforme.  
 AGIAN, nonbait, beharbada, **seguramente**.  
 AGIRI, **documento**.  
 AHANTZ, **olvidar**. (AHANTZI, ahantzu, ahaztu, **olvidado**).  
 AHOZKATZE, **pronunciar**.  
 AINA, adina, beste, bezainbat.  
 AINTZINAGO, aurrerago.  
 AISATZE, **errazte**.  
 AITZINDARI, **precursor**.  
 ALA, o **qué?**  
 ALABAINA, hala ere.  
 ALDA, **cambiar**. (ALDATU, **cambiado**).  
 ALDIZ, berriz, ordea, ostera.  
 ALEGIA, a **saber, es decir, esto es**.  
 ALEGIA, **Alegría de Oriá**.  
 AL KAHIRO, El Cairo.  
 ALOKAIURU, alojer, soldata, salario, jornal. (LANSARI, **prima**).  
 ALOR, arlo, sail.  
 ALT XOR, **tesoro**.  
 ANITZ, **asko**.  
 ARABERA, arauera, **según conforme**.  
 ARABERAKO, **proporcional**.  
 ARAUEZ, arauera, arabera, **según, conforme**.  
 AREAGO, oraindik gehiago.  
 AREAGOTZE, oraindik gehiagotze.  
 ARESTIAN, berriki, aurtemein, oraintsu.  
 ARETO, sala, **salón**.  
 ARRAKASTA, **éxito, succès**.  
 ARRAS, guztiz, oso.  
 ARRASATE, Mondragoe.  
 ARRE, **gris, pardo**.  
 ARRO, **cuenca, bassin**.  
 ARRUNT, guztiz, zeharo; **común, corriente, ordinario**.  
 ARTZAI, artzain, pastor, berger.  
 ASALDATZE, **rebelarse**.  
 ASKI, nahiko.  
 AT, kanpo, landa, lekora, **fuera**.  
 ATXEKITU, atxiki, **adherido, pegado**.  
 ATXEMAN, **encontrar, captar**.  
 ATXIKI, **adherido, pegado, dependiente**.  
 AUKERA, abagadune, era, ereti, parada, **ocasión**.  
 AURREUSTE, **presentimiento**.  
 AURREZKI, **ahorro, épargne**.  
 AUSARI, **intrepido, osado, valiente**.  
 AXOLA, ardura.  
 AXOLATU, **arduratu**.  
 AZTARREN, aztarna, arrasto, **rastro, vestigio**.

BA, bada, **pues**.  
 BARIK, gabe, **en vez de, au lieu de**.  
 BARRUTI, **jurisdicción territorial**.  
 BASAKA<sup>1</sup>, **gato montés**.  
 BATUZK, zenbait. (Batzuek aktibo, **batzuk pasibo**).  
 BEDERA, bakoitz.  
 BEDEREN, gutienez, behinik behin.  
 BEHARRIK, zorionez.  
 BEHINGOAN, berehala.  
 BERTINEAN, **en igualdad de condiciones**.  
 BILDUMA, **colección**.  
 BOKALE, Baionako hauzo handi bat.  
 BORTITZ, azkar, indartsu. (Berba hau latinezko **fortis** hitzetik dator).  
 BOZKETA, **elección, votación**.  
 BULEGO, oficina, bureau.  
 BURUTZE, **cerrar, terminar**.

DAGOENAKO, honez gero.  
 DAKIKEGU, dakigu nonbait.  
 DAKUSAGU, ikusten dugu.  
 DAKUSAT, ikusten dut.  
 DAKUSAZU, ikusten duzu.  
 DANTZUGU, entzuten dugu.  
 DASTATU, **saboreado, degustado**.  
 DATEKE, da nonbait.  
 DATZA, **yace, consiste, está**. (Etzan aditzaren forma).  
 DAZAGUGU, ezagutzen dugu.  
 DEITURA, **apellido, nom de famille**.  
 DEMAGUN, omen dezagun (daigun).  
 DEMAS, grande, **exorbitante, exagerado**.  
 DESIRA, gurari, **deseo**.  
 DEUS, ezer.  
 DEUSEZTATU, **destruido, aniquilado**.  
 DEUSEZTATZE, **destruir, aniquilar**.  
 DUKE, du nonbait

EBAKITZE, **pronunciar**.  
 EDOZELAN, **nonnahi**.

EGITURA, **estructura**.  
 EGUN, gaur.  
 EHIZA, **caza, chasse**.  
 EKIALDE, eguzki alde, **Este**.  
 ELIZALDE, **anteiglesia**.  
 ERAITSI, jaits **crazi**.  
 ERAKUNDE, **organismo, organización**.  
 ERASOTZE, jazaritze, oldartze, **atacar**.  
 ERAUZI, **arrancado**.  
 ERDIETSIKO, lortuko.  
 ERDU, etor.  
 EREDU, **modelo**.  
 EROR, caer, **tomber**. (ERORI, **caído, tombé**).  
 ERRETERIAR, Luis Mitxelena.  
 ERRESUMA, **reino, nación, estado**.  
 ESKERGA, gaitz, **enorme**.  
 ESKUALDE, **comarca**.  
 ESKUALDEKATZE, **división comarcal**.  
 EURREZ, **erruz, abundantemente**. (Gure ustez, euskara batuan Bizkaiko eurrez erabili behar litzateke, eta ez **erruz**, azken berba honek beste esangura bat ere ba du eta).  
 EUSKALKI, **dialecto vasco**.  
 EZEN, ze, **pues**.  
 EZEZE, **no solamente**.  
 EZKUTU, **escondido, oculto, caché**.  
 EZPAI, ezbai, **duda, zantzanta**.

FUNTS, **fondo, sustancia, fundamento**.

GABE, barik, **en vez de, au lieu de**.  
 GAINGIROKI, **superficialmente**.  
 GAITZ, **eskerga, enorme**.  
 GANTZ, **grasa sólida, graisse solide**.  
 GARAI, **alto**.  
 GARAMATZATE, garoez, eramaten (eroaten) **gaituzte**.  
 GATAZKA, **conflicto, disputa, querella**.  
 GERA, **geldi**.  
 GINO, arau, hein, **proporción, medida**.  
 GISA, modu, era; bezala.  
 GORABEHERA, a **pesar, malgré**.  
 GORANTZA, **alabantza**.  
 GREBA, **huelga**.  
 GREBALARI, grebarri, **huelguista**.  
 GURPIL, burpil, **rueda, roye**.

HAIK, hareek. (Haiek aktibo, **haik pasibo**).  
 HALABER, **igualmente, así mismo**.  
 HARAKIN, **carnicero, boucher**.  
 HARAN, **valle**.  
 HARTZEKE, hartu gabe.  
 HARTZEKO, harturen, **haber, créance**.  
 HASTAPEN, **haste, hasiera**.  
 HAUK, honeek. (Hauek aktibo, **hauk pasibo**).  
 HEIN, neurri, **grado, proporción**.  
 HERRIALDE, **región**.  
 HERTSI, hetsi, hitxi, **cerrado, fermé**.  
 HILDO, **surco, sillón**.  
 HIZKUNTZ, Hitz honi eta hurrengoari Armendaritzek azken bokala kentzen die, geroago datorren arlo berbarekin hitz elkartu bat egiten dutelako: **hizkuntz arlo, kultur arlo**).  
 HONANTZA, **honantz, honuntz(a), honat, hunat**.  
 HOIK, horik, horreek. (Hoiek aktibo, **hoik pasibo**).  
 HORIK, **hoik, horreek**. (Horiek aktibo, **horik pasibo**).  
 HORTAZ, horretaz, **beraz**.  
 HOTS, a **saber, es decir, esto es**.  
 HURA, ha

IDAROKI, **iradoki, insinuar**.  
 IGORRI, bidali, **bidaldu**.  
 IHARDETSI, **crantzun**.  
 IHESTE, **ihes egite**.  
 IKASTENAGO, **gehiago ikasten**.  
 IKERTU, aztertu, **arakatu**.  
 INDARGE, **indar gabe**.  
 IRAGAN, iragandako, iraganiko, iraganikako.  
 IRITXI, heldu, **ailegatu**.  
 IRIXTE, **heltze, ailegatze**.  
 IRTEN urten, **atera, jalg**.  
 IZKUTATZE, **gordetze, ocultar, caché**.

JADANIK, **ya**.  
 JARRERA, **postura, actitud**.  
 JASAN, **aguantar, soportar**.  
 JAZOTZE, **gertatze**

KOIPE, **grasa derretida, graisse fondue**.  
 KOLKA, **clueca, couveuse**.  
 KORRITU, **hobari, interés**.

LANEZ, **lanik ez**.  
 LANSARI, **prima**. (ALOKAIURU, alojer, soldata, **jornal, salario**).  
 LANTURU, **lamento**.  
 LARREGI, **gehiegi, sobera**.  
 LAZGARRI, **terrible, horrible, espantoso**.  
 LEGEZ, **lez, bezala**.  
 LEINU, **tribu**.  
 LEPAZURI, **garduña, fouine**.  
 LOHIHARTZEKO, **buzo**. (Berba hau Bermeon erabiltzen da **asko**).  
 LOR, **erdiets, conseguir**. (LORTU, **erdietsi, conseguido, logrado**).

MAISEATZE, **kritikatze**.  
 MAIZ, **sarri**.  
 MANDA, **banda, lado**.  
 MANTXU, **manco, escaso**.  
 MENDEBALDE, **mendebal alde, occidente**.  
 MERKATALGO, **comercio**.  
 MINTZO IZAN, **hitz egin**.  
 MOZKIN, **producto, beneficio**.  
 MURMURIO IKUTU, **toque susurrante** (aho hertsiaz\* egindako soinu).  
 MUSKARIA, **Tutera, Tudela**.

NABARI, **evidente, notorio, patente**.  
 NABARITZE, **notar, percibir, sentir**.  
 NOIZDANIK, **noiztik**.

OHIZKO, **habitual**.  
 OIHAN, **baso**.  
 OIHARTZUN, **eco**.  
 OIHUZTATU, **oihukatu, dicho con voz fuerte**.  
 OMEN, **ei**.  
 OPA IZAN, **eskaini**.  
 OROBAT, **berdin**.  
 ORO HAR, **en conjunto**.  
 OSA, **completar, perfeccionar**. (OSATU, **completado, perfeccionado**).  
 OSTERANTZEKO, **distinto, diverso, diferente**.  
 OTSAIL, **febrero**.

PARADA, **abagadune, ereti, ocasión**.  
 PIKOTA, **picota** (antiguo instrumento de suplicio). PI-KOTARA JOAN, **ir al traste**.  
 POZARREN, **pozik**. (Asko erabiltzen da Bizkaian).  
 POZOINTSU, **venenoso**.

SALDO, **aldra, talde**.  
 SOBERA, **gehiegi, larregi**.  
 SUNTSITU, **hondatu**.

TANKERA, **estilo**.  
 TEHENTA, **machaqueo, rengaine**. (TEHENTA BEREKO, **monótono**).  
 TEMA, **porfia, obstinación**.  
 TEMATI, **forfiado, terco**.  
 TENORE, **ordu, garai**.  
 TXATXUKERIA, **frivolidad, fatuidad**.

UKAN, **izan**. (Ukan aktibo, **izan pasibo**).  
 UKATE, **izate**. (Ukate aktibo, **izate pasibo**).  
 URTARRIL, **enero, janvier**.  
 USU, **maiz, sarri**.  
 UZTA, **cosecha, récolte**.

XAHUTZE, **cxalgitze, gastar**.  
 XANDA, **txanda, turno**.  
 XEDE, **helburu, asmo**.  
 XUME, **humilde**.

ZAMA, **karga**.  
 ZARATEKE, **zara nonbait**.  
 ZATERKEEN, **izango zen**.  
 ZELAN, **nola**.  
 ZEREN (ETA), **ze, pues**.  
 ZIAT, **dial, joat, dut**. (Aditz forma hau onhartuko omen da euskera batuan).  
 ZINEZ, **benetan**.  
 ZUHAIKKA, **arbola txiki**.  
 ZUZENBIDE, **derecho**



# Aiteder preziatu miretsiak

## "Harki" en buruzagiari

Agur, mitologo hori:

Hastapenetik\* irakurri dizkiat hire izkribuak, nik uste; gure artean, orain dela bizpahiru urte, idazten hasi hintzenez geroztik beretik. Eta euskal pentsakera aurrerazalearen moldatu beharri buruz esperantza apur bat ezarri nian higan lehenengo artikuluetan. Gaur, berriz, esperantza haren arrastorik ez zegok.

Oso gorritz jantzirik, bete betean abiatu haiz Ramiro de Maeztu eta Ibarnegarainen bide ezagunetatik. Tomismoaren eraginak, itxura denez, sakonkiago zulatu dik higan, hasieran uste izan nuena baino. Kontsola hadi, hala ere; ez haiz, egoera horretan dagoen apezkume bakarra; eta urte batzuen buruan —espero diat— joera horri nagusituko hatzaio.

Ez haiz argiro mintzo;\* nahiz, hik dioana esateko eta etengabe salatzen duana salatzeke, ez trabarik izan, ez zertan kezkatu ere. Txalo ugari jasotzen duk eskuinaldean eta Hegoaldean. Hoa lasai, hortaz;\* mintza jakigu garbikiago. Esan garbi zer bilatzen duan, nork bultzatzen hauen, eta zerk horretaratzen hauen. Jakin ez zekiat; baina uste baino lehenago jakingo diat.

Hi ez haiz garbiki mintzo, nahi ez dualako, hain zuzen. Ni, berriz, ezin naizelako. Nahiz, hik dioanez, «euskaldun historiko, objektibo eta errealaz ahanztu» banaiz ere, ez diat horko deus\* ahantzi.\* Adierazi nahi nukeenaren laurdena ere esan ahal izateko (idaroki\* ahal izateko, hobeki esan), mila komeria ikusten diat nik. Hik, berriz, ez; hik lasai egin dezakek heure kritika lana. Xehekeria (omen\*) honetzaz ahantzi bahaiz, nor da ahanzkorra: ni ala hi? Hamabi urte honetan hire Alegia\* ikusia ez dudan artaburu «ahanzkor» honek, garbiki erantzun nahi niake gaur, eta ezin diat. Mitxelenak ere ez; eta jakin egin behar likek ahanzkor ez denak.

Hik, berriz, egin hezake; eta ez duk osoki egiten. Herorrek esan duk etika ez dela deusik, ez bada politikaren mailara irixten.\* Eta hire mitologiak ere ez. Hots,\* egiaren beldur haizelako, «euskal mitologia»ren salakuntza errazean izkututzen\* duk heure burua; eta mito apurketa sutsu horretan (orain Mitxelenaren «mitoa»ri tokatu zaiok txanda) zerbitzatzen duan politika zehatza ez duk aitortzen. Zergatik ez? Heu haiz ahanzkorra.

Bakarra duk hire tema,\* beste jaun horiena bezalaxe. Hire azken hiru izkribuak irakurri besterik ez diagu behar, horretaz jabetzeko: neroni eta Mitxelenari segidan eskaini dizkiguan lerro pozointzuetan\* eta «Euskal Literatura 72» deritzan bilduman\* argitara duan «Hitzaurre Gisa» ustelean, hari bakar bat gidari: «Euskal Mitologia». Eta ez haiz Laminez eta Basajaunez mintzo, baina arnismoaz eta mitxelenismoaz.

Axaleko huskeriak alde batera utziz, beraz, irakur dezagun erne:

—«Herria ez da bat».

—«Herri baten batasuna, fikzio literario bat da».

—«'euskal' ideologia bat eta bakarraren ilusio eta amets interesatua».

—«gauza bitxia da, nola gerra ondorengoei zuhurki gorde izan zaizkigun gerra aurreko euskaldunen diferentzia ideologikoak (funtsean\* oraingoak)».

—«Euskal Herrian euskaldun tipo ugari dago. Kultura ugari da. (Produzio molde ugari da, guttienez hiru)». Eta abar, eta mila aldez abar.

Hitz batez: Euskal Herria ez duk behin ere bat izan, eta ez duk behin ere bat izango. Erauzi\* egin behar diagu mito hori geure eskualdeetatik.\* Euskal Herria beti izan duk zatitua, eta beti izango duk zatitua.

Hobe horrela gainera, erantsi duk, behin bederen\* mozorrorik\* gabe mintzatuz: «Alfer derizkiot, etorkizunari gagozkiozlarik, Euskal

Herri Bakar eta Komun baten desirari.\* Gauzak horrela dira, horrela izan behar zuten; eta ausartak\* behar dugu izan, liberal garenez, Euskal Herriarekiko eta Historiarekiko ikuspegi desberdinak onharitzeko».

Nik neuk, ordea, zozo bistalabur honek, ez diat hire esaera horietan batere ausardiarik atxematen.\* Ez eta izpirik ere. Ezen\* oso ahanzkorra izan behar baita (hi haizen tamainakoa bederen), hire jarrean\* ausardiarik eta berritasunik aurkitzeko. Ez dituk gaur Pragan inolaz ere ausartak, «gora Brexnef» oihu egin eta «Dubcek-en mitoa» salatzen dutenak, «kanpora errusitarak» hitz erdizka bederen esaten saiatzen direnak baizik.

Gaur Somorrostron langileriaren mitoak salatzea eta Quebec-en quebecar mitologia maiseatzea,\* koldarkeria duk. Orain dela hogei urte Argelian argeliar mitologia salatzea, «harki»en eginkizuna izan zen bezala.

Hire jokabidea, hortaz,\* «ausarta» ez baina koldarra iruditzen zaidak arrunt.\* Eta hire sasi-teoriak, odola baino gorriago jantzirik ere, karlismoa eta absolutismoa baino ere zaharrago... eta urdina. Hain zuzen ere, hire mito salaketa hori, justu duk, zeharo justu, Juan Antonio Llorente azken Inkisidoreak 1800.aren inguruan hasi zuen lanaren segida «berritua». Ez nitek ohore hori neuretzako nahi benetan.

Jakina. Kontrazio gaitzak\* ikusten dituk hiz gure herrian; eta horrek eraman omen\* hau, beti egiaren gorantz\* eta zerbitzutan, aurkitu duan egia latz hori aitortzera: alegia, Euskal Herria ez dela bat. Nola harri haiteke hi, ordea, marxista argi haizen hori, gure herriaren funtsean\* kontrazioa topatzeaz? Ni neu, marxista ez izanagatik ere, ez nauk harritzen. Eta hi harritu? Edozein lekutan topatu diat nik kontrazioa: Japonen, Espainian, lantegietan, bulegoetan,\* sozialisten artean, marxisten artean, trotskisten artean, senar-emazteetan, neure buruan. Hik ez, ala\*? Marxen ustez, oker ez banago, munduaren eta izanaren beraren kaka eta azken funtsa kontrazioan zetzak. Marxista batek, hortaz, ez zeukak zer harriturik, Euskal Herrian kontrazioa topatzean. Hik nik baino gutxiago.

Nik, bestalde, ez diat inoiz sinetsi zatiketarik gabeko Euskal Herri mitikotan: pentsakeraz ez nauk totalitario bat. Baina ez diat neure herriarentzako nahi, bestek bere herriarentzako daukanaz besterik ezer.

Hik zer nahi hukeen ez zekiat. Eta beldur nauk oso, nik baino lehenago ez ote duen anitzek igarriko. Beharrik\* igarriko

Agur t'erdi.

LARRESORO

### TOKETAZKO ADITZ FORMAK

diagu (ziagu), **dugu**

diat (ziat), **dit**

dik (zik), **du**

dituk, **dira**

dizkiat (zitiak), **ditut**

duk, **da**

iikek, **luke**

nauk, **naiz**

nian, **nuen**

nikek, **nuke**

zaidak, (ziaidak), **zait (jat)**

zaiok (ziaiok), **zaio (jako)**

zegok (diagok), **dago**

zekiat (diakiat), **dakit**

zetzak (diatzak), **datza\***

zeukak (diadukak), **daduka**

(**dauka**)

### OSTERANTZEKO ADITZ FORMAK

dezagun, **daigun**

dezakek, **daikek**

dizkiguk, **deuskuzak**

hatzaio, **hatxako**

hezake, **heike**

niake, **neuskik**

zaizkigu, **jakuz**